


www.noaia.com
Nu!



Gabonetan ere,
Plis, Plas, Txalo ta Jolas

Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak



Josu Tellabide Azkolain

Gabonetako oparirik onena

Berrikuntza



ILEAPAINDEGIA

Makilajea Manikura

**Eguberri eta Urteberri
Zoriontsuak izan!**



ZUBIAURRENEA 4 USURBIL

TEL.: 943 361 951

**HERRIKOA, ATSEGINA,
HUNKIGARRIA, EZINBESTEKOA**

ESKURA EZAZU:

"Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"

- Lizardi liburudenda.
- Laurok liburudenda.
- Kioskoa.
- Txapartegi harategia (Aginaga).
- Eiza denda.
- Peña Pagola elkarte.
- Alkartasuna nekazar kooperatiba.
- Zumeta jatetxea.
- Barazar jatetxea.
- Alamandegi jatetxea.
- Santueneako Esnaola denda.
- Noaua! Kultur Elkarte.

Prezioa: 38 Euro

**Bazkideentzat 25 Euro
NOAUA! Kultur Elkarte.**

Noaua!


**Usurbilgo Baserriak
eta Baserritarrak**



Josu Tellabide Arbolain

Argazki paregabea duzue honako hau, nahiz eta nahiko zaharkiturik egon. 1955-1956 urte inguruko argazki hau Txokoaldeko estazio aurreko erriberan atera zen. Ageriko gazte koadrilak futbol taldea osatu zuen Irisasin egurra ateratzen ziharduten santanderinoen kontra jokatzeko. Hona hemen ezkerretik eskuinera eta goitik behera futbolari paregabe hauen izen-abizenak: Jose Luis Muguruza, Joxe Zumeta, Santi Zumeta, Zumeta jatetxeko neskamea, Joxe Luis Zumeta, Joxe Arbitza, Inaxio Labaka, Joxe Mari Urdangarin, Luis Mari Beristain, Lontxo Urdangarin, Jexux Labaka, Jose Manuel Mitxelena eta Pedro Muguruza. Nork irabazi ote zuen partidua?

Zalao Arnaiz Ibarguren



ARGAZKILARIA: EZEZAGUNA, 1955-1956, TXOKOALDE

JABETZA: INAXIO LABAKA

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaia.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : *Noaia!* Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
elkartea@noaia.com
www.noaia.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaia.com

Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapaskak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaia.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaia! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaia! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Liburuak arrakasta handia izan du hasiera-hasieratik.

Aurkibidea

ZUTABEAN, JAKOBA ERREKONDO _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

NEKAZARITZA ETA LANDALURRA _____ 10. ORR.

LEHERGAILUA ZUMARTEGIN _____ 12. ORR.

URTEKO LIBURUA _____ 14. ORR.

“Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak”
liburuari harrera paregabea egin zaio.
Jada salgai dago ohiko saltokietan.



IKASTOLA KOOPERATIBAN BILAKATU DA _____ 16. ORR.

IÑAKI ERRASTI, ORIOTIK ASTILLERORA _____ 17. ORR.

LEHIAKETA ETA DENBORAPASA _____ 19. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea



JAKOBA ERREKONDO

Osasunakin urratu

Eoskorrak izan... Hauxe da burura etortzen zaidan aurrenekoa. Eoskorra izan behar egungo atarramentua ezagutu eta halare lan hortara lotzeko. Ametsak zilegi ez diran gizarte lehor hontan naturala beharko lukeena eoskorkeriaren poderioz lortzen saiatu beste aukerarik ez da. Belmonteko "Ipularra"-k hiru upeletako eoskorrrak diala dio: setosuak, temosuak eta bullosuak. Usurbilen hiruretatik ondroso badegunai eskerrak...

Gure herria zer izan dan eta, ondorioz, zer danari buruz ikertu eta zabaltzea bultzatzeko beka bat sortu zuen aspaldi batean NOAUA Kultur Elkartek. Ziortza inguruko gazte batzuek herriko baserrien inguruko lan bat egiteko gogoaz aldu zuten. Eta gustatu. Lanean hasi eta berehala jabetu ziran lanaren tamainaz. Beka luzatu eta gero ezin bere horretan utzi, ezin etsi! Herria bertako gutxi bezela ezagutzen duen Josu Tellabideri lana burutzea eskeini zitzaion. Ezetz esaten ez dakien horietakoa izaki, prest azaldu zuen bere burua. Baldintza bixkia jarri zuen: baserri buruzko liburuak hamaika tokitan egin dira, baina gehienetan baserri-etxeaz, eraikuntzaz soilik hitz egiten da, Usurbilgoa egitez gero baserrietaz bai, baina batez ere baserritarretaz arituko zena egitea, eta bizkarrean lantalde baten hatsaren babes sentitzea. Dema latza zan. Eta gustatu. Hasi ordu-rako jabetu zan Josu lanaren tamainaz; baina lantalde eoskorra osatu eta behin uztarria lotuta, baita amaitu arteko setari kemenez eutsi ere! Batzuetan hestuxeago, beste batzuetan arinxego, bost urtez luzatu den auzolan baten historia izan da hau.

Eta orain begietan det "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" ize-

neko liburua. Begietan, eskuetan, eta Usurbildarrak honelako entziklopedia bat egiteko gai izan gerala sinistu ezinik nago oraindikan. Amets bat ia hiru kiloko liburutzar batean gauzatua. Hiru kilo paper... eta milaka lan ordu... eta ehundaka herritarren eskuzabaltasuna... eta milaka eta milaka euro... eta mila eta hirurehun argazki... eta berrehun eta berrogeita hemezortzi baserri... eta zientoka pasadizo... eta kontatu ezin ahala oroimen... eta zapzi milatik gorako herritarren aipamena... eta NOAUA kultur elkartearen bultzada... eta Udalaren babes... eta Alkartasuna baserritarren kooperatiba eta Kultura sailaren laguntza... eta hankasartze batzuk... eta gure bi amona Joxepa... eta bestetxeko Joxe... eta Oabeako Julian... eta Olanoneako tolarea... eta autopistak suntsitutako bi Artikulak... eta autopista berriak eraitsiko duen Aritzeta... eta erre berria den Bekoerrot... eta hainbat eta hainbat irri malko izerdi bertso... eta gerra baten zauriak... eta...

Liburu hau, hala ere, beste batzuen atariko izatea gustatuko litzaidake. Herria porlan hutsez egin nahi duten horien moztasunaren gainetik, norbanako ameslari sorta zabal batez osaturiko gizatalde bat gerala eta axaleko folklore hutsa baino sakonagoko kultura bateko izakera degula jabetu gaitezen. Usurbildarrok jantzi gaitezen, nor izan gaitezen. Asmo berriak, gogo berriak eta auzolangileak beharko dira...

Amets bakar bat egi bihurtzeko gai denak esker ona behinik behin merezi du. Zorionak eta eskerrik asko. Bejondeigula eta osasunakin urratu.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika

Luismari Ormaetxeari

Non nagoen galdetzen didak, Alkatearen izenpea daukan eskutitzean (NOAUA!, 2004-12-03). Jakin ezak, beste ezer baino lehen, ez haudala alkatetzat onartzen. Ez haiz hi herri honen alkate legitimoa. Egoera bidegabe hau bere probetxurako erabiltzen ari den poltronagosea haiz hi, ez besterik.

Non nagoen galdetzen didak. Zeinek? eta hik, alajaina, herrira sekula santan auzaltzen ez denak, herritarrei harrera pertsonala ukatu dienak, udalaren eta herritarren arteko komunikazioa saihesten duenak. Neri galdetu beharrean, hobe hukek hi herorri non nagoen argituko bahu.

Hire eskutitza maltzurkeria haundikoa duk. Batetik, nire oinordeko naturala bahintz bezala azaldu nahi duk herritarren aurrean, nire garaiko gestioaren jarraipena egiten ariko bahintz bezala. Bestetik, UHLrekin desadostasunak ditudala eman nahi duk aditzera.

Gezurretan habil, eta esango diat zergatik.

Hire gestioak ez zeukak zerikusirik gurea-

rekin, eta ez itzak gure lana eta hirea konpara, faborez.. Hik, orain arte, guk egindakoa aprobetxatu egin duk, eta gainera, egin dituan aldaketak kaltetarako izan dituk. Arau Subsidiarioak direla eta, gure garaian herritarrei parte hartzeko aukera zabala eskaini geniean: auzoz-azoko aurkezpenak egin genizkian bi errondetan, eta herritarrek esandakoak kontuan hartu genizkian azken bertsioa egin aurretik. Ez duk hori hire estioa. Arauak egiteko, honako irizpide nagusiak erabili genizkian: herritarren beharrei erantzutea baina gehiegizko hazkundera ebittatzea, dugun ondarea zaintzea, herri-nortasuna babestea eta interes espekulatuzailei aurre egitea. Irizpide tekniko soilen gainetik herriaren izaera babestu nahi genian, eta horregatik mugatu genian etxegintza-eremua, nahiz eta teknikari batzuk ez zeuden horretan ados. Irizpide horiekin eta arauen edukiarekin bat egin zian Batasunak, eta egindako bilera eta asanbladetan horrela nabarmendu huen.

Ondo asko dakik Ugarten eta

Ugartondon finkatu genituen irizpideak hik desitxuratu egin dituala. Harritu egiten al haiz UHL aurka jartzea? Guk Ugartondoko eremua kontsolidatuta utzi genian, eta baserria, berriz, katalogatua eta eraikina babestua, barnean 14 etxebizitza egiteko aukerarekin. Eta hi kapaz haiz beste 6 etxebizitza gehiago egiteagatik Ugarte baserria botatzeko! UHLtik egin zaizkian kritikekin ados nagok guztiz, eta gainera, kritika horien egile nauk ni ere, UHLko kide naizenez.

Hire eskutitzean modu maltzurtean erabiltzen nauk, hire burua goratu behar horretan. Urte eta erdi zeramazkiat udal-gestioaren ardurak utzita. Aldi honetan egoera eta bizipen gogorrak eramatea egokitu zaiguk familiakooi. Uste diat pake-pakean uzteko eskubidea ere badugula. Baina hik ez daukak gizatasunaren arrastorik.

Hasieran esan diat ez haudala alkate moduan onartzen. Orain gehitu nahi diat oso kategoria eskaseko pertsona haizela.

Joxe Antonio Altuna

Ika-mika !

Epaiketarik ez, elkartasuna Olatz, Joan Mari eta Pellorekin

Abenduak 3a ez zen oharkabeen pasa euskaldunontzat. Euskararen Nazioarteko Eguna izatearekin bat, beste behin ere Espainiako Auzitegi Nazionalak euskararen eta Euskal Herriaren aldeko lana zigortzeko asmo irmoa adierazi baitzuen. Madrildik iritis ziren egun horretako albiste nagusienak. Alde batetik, Euskaldunon Egunkariaren auzian auzipetutako lagunek, Martxelo Otamendi, Xavier Alegria, Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Xabier Oleaga eta Pello Zubiriak, Del Olmo epailearen aurrera joan behar izan zuten auzipetze autoa jasotzeko.

Deklaratzen ari ziren unean, zorigaitzoko beste albiste bat iritsi zen Auzitegi beretik: 18/98 sumarioan auzipetuta dauden 62 lagunentzat fiskalak zigor eskaera egin zuen. 62 lagunentzat 10 eta 51 urteko espetxe zigorrak eskatu ditu Espainiako Auzitegi Nazionaleko Enrique Molina fiskalak; guztira, 1.102 urteko kartzela eta miloika euro-

tako isunak batzen dituzten isunak. Auzipetuen artean da Olatz Altuna herritarra. Fiskalak berarentzat 10 urteko espetxe zigorra eskatu du. Zigor gogorrenak Ramon Uranga eta Xabier Alegriarentzat galdegin ditu, zehazki 51 urtekoa batarentzat zein bestearentzat. Zigor horiek neurritz kanpokoak dira: Egunkari baten administrazio kontseiluaren partaide izateagaitik 51 urteko espetxe zigorra eskatzeak parekorik ez du mundu osoan.

18/98 sumarioaren instrukzioa Baltasar Garzon epaileak gidatu du, eta hainbat auzi daude hainbat ataletan banatuta: Egin eta enpresek osatzen dute lehena, Xakik bigarrrena, eta Ekinek eta Joxemi Zumalabe Fundazioak hirugarrena. Sumario hasiera hasieratik politikoa izan da, oinarri juridikorik gabekoa. Garzonen helburu bakarra eta garbia lortzeko egin du: Euskal Herriaren eskubideen alde lan politikoa egitea, gizarte mugumenduaren alde jardutea eta Egin bezalako egunkari bat aurrera era-

matea delito bihurtu nahi izan ditu, eta horretan lanean dihardutenak espetxeratu.

Auzitegi batek eginiko ekinza politiko baten aurrean gaude, eta neurritz kanpoko zigor eskaeraren aurrean. Udaberrian epaitu nahi dituzte 62 auziperatuak.

Usurbilgo ezker abertzaleak ozenki salatu nahi du epaiketa hori, fartsa bat dela. Gainera, 18/98 sumarioan pasa dena ikusita, oso litekeena da abian dauden gainerako auzietan ere (esaterako, herriko tabernak, Haika-Segi, Askatasuna, Udalbiltza eta Egunkariko auzietan) antzeko zerbait gertatzea. Beraz, tamalez, 1.102 urteko kartzela zigorra ez da ezer izango, oraindik etortzeke dagoen guztiari erreparatuz gero.

Elkartasuna eta animoak helarazi nahi dizkiegu auziperatu guztiei, 18/98 sumarioan eta Euskaldunon Egunkariko auzian daudenei, eta, batez ere, herrikideak ditugun Olatz Altuna, Joan Mari Torrealdai, eta Pello Zubiriari.

Usurbilgo ezker abertzalea

Ika-mika !

Dei batek esnatu nau

Goizaldeko 4:10ak dira. Telefono dei batek esnatu nau. Udaltzaingoaren zenbakia da. "Ez da gauza onik" nere barrurako esaten dut. Lehergailu batek eztanda egin du udalerriko enpresa batean. Nahasmena.

Etiket atera eta bidean jarri naiz. Ilun dago, haizea, hotza. Burua abiada osoan darabilkit: zer aurkituko dut? Zergaitik gertatu da? Zer esango diot enpresa nagusiari? Nola? Berria naiz holakotan. Bakardadea.

4:30. Iristen naiz eta gertatutakoaren berri ematen didate. Tristura.

Nagusia han dago. Begirada amaiezina gurutzatzen dugu. Eztandak sarrerako atea lehertu du: burniak korapilatuta, leherturik, garrasika dirudite; kristalak zartaturik begira ditugu. Inpotentzia.

Aurrez aurre hurrengo egunean jango dugun ogia ekoizten. Langileek aldian behin burua luzatzen dute atetik. Ikara hezurretaraino sartu zaie. Beldurra.

Nagusia han dago, atzera eta aurrera, begirada galdua, lasai. Zer ote dabilkio

buruan? Hainbeste esfortsuarekin eraikitako enpresaren etorkizuna? Langileen etorkizuna? Mantendutako tinkotasun etikoa? Familiaren kezka? Ni, aldamenen.

Goizeko 6:30ak. Ikerketa zientifikoa bukatu da. Ohol batzuekin sarrera ixten dugu. Zauria estaltzen dugu baina mina sakona da. Agurtzen gara.

Pentsakor noa. Hainbat enpresari txiki, merkatari eta tabernariak egun hauetan sobre bat jasoko dute: "badakizu, urterokoa; datorren astean pasako gara jasotzera" entzuten duten bitartean. Sobreari begira geratuko dira eta nahasmena, bakardadea, tristura, inpotentzia, beldurra sentituko dute, begirada galduarekin eztanda entzuten duten bitartean.

Beldurra librea dela diote. Ni ez naiz nor etika irakaspenak emateko baina beldurrean oinarrituriko jokabideak ezin dira zuzenak izan. Ona ez den bezala norbaiti injustizia bat eragiten zaionean bakarrik uztea. Mehatxatuen ondoan ni ere egongo naiz eta nerekin batera herriaren gehiengoa. Bai.

Oinez noa eta topo egiten dut kartel batekin: "Orain Herria, Orain Bakea proposamenaren aurkezpena". Begira geratzen naiz. Zer leku ote du gaurkoak proposamen honen barruan? Enpresari txiki bat ez al da "herria"? zer ikusirik ba ote du lehergailu baten eztandak, "Bakearekin"? Nolako gira-buelta dialektiko erabiliko dute oraingoan guztia justifikatzeko? Aurkezpen horietan norbait ausartzen al da horrelako galderak egitera?

Hego-haizeak orbela astintzen duen eran, errealtate krudelak hitz politikak zokoratzen ditu.

Ettxera noa. Herria ixilik dago, lasai, lo.

Hurrengo egunetan argiz betekoa da herria; poza eta alaitasun egunak gertu ditugunaren adierazgarri.

Itxaropen espiritu gure etxeetan sartzeko prestatzen ari gara, baina aurten, Usurbilen, etxe askotan, beldurraren espirituak aurre hartu du.

Luisuari Ormaetxea. Alkatea.



**ALOÑA
LOIDI**

Txokoalde

Berriz ere Udaletxera jo dugu

Nik idatzitako azken kronika irakurri zenutenak, gogoratuko duzue, noski, sinadura bilketari buruzkoa zela. Bai, Bekoerrotan, Babes Ofizialeko 10 etxebizitza egiteko proposamen horri bultzadatxo bat emateko asmoz bildutako firmak, alegia.

Bada, firmak bilduz geroztik izan gara berriz ere Udaletxean eta Bekoerrotan izandako sutea baino 15 bat egun lehenago, Zatarainek (Bekoerrotaren jabeak), etxebizitzak egiteko proposamen berri bat azaldu omen zuela esan ziguten. Orain Udaletxeak, hilabete baten barruan erantzun bat emango omen dio Zatarainek aurkeztu duen proposamen horri, izan ere, ezin omen da eskatzen duen etxe kopuru guztia egiterik onartu eta akordio batera iritsi behar omen dute Udalak eta Zatarainek.

Gauzak horrela, Udalak, Zatarainekin akordio batean iristen denean, gertakari guztien berri emango zigula agindu zigun.

Horrez gain, beste hainbat gauza ere komentatu genizkion Udalari, hauek dira:

- Txokoaldeko pilotalekuko argia, iturria eta sarea.

Izan ere, argia lehen 6 hilabeteetan besterik ez zen egon martxan; iturria eta sarea, berriz, hautsita daude.

- Zumeta Jatetxearen aurreko lorontziak aspaldian lorerik gabe daude.

- Jolas parkearen egoera orokorrean berrikusi beharra dago.

- Erroizpe elkartearen aurreko errekararen erortzeko dagoen arriskua.

Puntu hauek guztiak aztertuko direla eta ahal bezain laster konponbide bat bilatzen saiatuko direla agindu ziguten.

Erroizpe soziedadearen arazoak aipatu ziguten, elkarteko kideen eta Udalaren artean irtenbide bat bilatu nahian dabilzala.

Azkenik, nahiz eta jakin NOAUAKO azken bi aleetan Bekoerrotan izan den suteari buruz idatzi dela, aipatu beharra daukat gure auzokide den Garikoitz Alkortak egindako ahaleginengatik izan ez balitz, gu bizi garen etxea (Gaztañadi-Txabal) guztiz kixkaliko zela, eta nork jakin noraino zabalduko zen sutea! Beraz, zuri, auzotar ausart horri, mila esker.



**BEGOÑA
REKONDO**

Kaleberri

Beheko Plaza

Orain dela gutxi arte, goizean jeiki, leihoa eta pertsiara ireki, eta ikusten nuen lehendabiziko ikuspegia, beheko plaza zen, orain Jose Martin Sagardia izena duena. Beti iruditu zait txoko atsegina.

Garai batean, bazeukan mugimendu dexente. Gogoan daukat, nola txikitan joaten ginen erosketak batzuk egitera, izebarekin. Astero etortzen zen kamioi txuri bat. Alde batetik ireki, eta han azaltzen zen produktu pila. Barazkia edo fruta baldin bazen erostekoa, hauek pisatzeko, horietako pisu zahar bat erabiltzen zuten. Goiz guztia pasa eta gero, han abiatzen zen, beste herriren batera, hurrengo astra arte. Gogoan dut ere, nola jolasten ginen harritxintzarrekin, marrazkiak edo pilak eginez. Gazte garaian, berriz, petrilean eseri eta zinemaren atea ireki arte itxoiten. Zine zahar hura. Atea ireki bezain pronto, han igotzen ginen, korrika batean, eskailera estu batzuetatik. Pelikula hasi baino lehen, txutxeria batzuk erostera joaten ginen, eskubitan zegoen txoko batera. Pelikula ikusteko garaia iristen zenean eta txoko horren

pertsiana isten zenean, gure eserlekutara joaten ginen abaila batean. Hemen ikusi genituen gure lehenbiziko pelikulak, bost pezetaren truke. Baina festa garaia izaten ziren momento onenak, gauaren babesean, lehenbiziko dantzak eginez.

Beste hainbat momento onak ere igarotakoak gara bertan.

Herriko txoko guztiak, non haurtzaroa eta gaztaroa igaro dugun, denboraren poderioz, goraipatu egiten ditugu. Denbora badoa, eta herria ere aldatu egiten da. Usurbil ere aldatu egin da, gu geu bezala. Batzuetan kosta egiten zaigu maite dugun aldaketak onartzea, baina beharrezkoa izaten da. Ezin dugu oroitzapenekin, bakarrik bizi. Herria ere, behararen arabera aldatzen dijota.

Ikusten dudana gehiena gogoko dut eta ilusioa daukat nola aldatuko den ikustea.

Orain ere, beheko plazan, Jose Martin Sagardiaren plazan, ikusten dira bikoteak besarkatzen, ikasleak autobusari itxaroten eta Udaletxera joaten den jendea bueltara ere. Orain ere, plaza ez dago bakarti. Aldatu egin da soilik.

Urte berri on

Udazkena dijoan heinean, negua dator, eta honekin batera Eguberriak. Beraz lehenik eta behin Eguberri on danoi. Badira egun hauek etortzeko desiatzen egoten direnak pozaren pozez, bestea, berriz, noiz pasako zain tristerik. Badirudi gure Kalexarrek Urte Zaharra eta Urte Berria era berdinean ospatuko dituela, obretan. Ugarteko aldaparekin bukatu eta Ugarte baserri zoragarriarekin bukatu. Guzti hau gutxi ez bada, errausgailuaren mehatxua ere hor dugu. Ez gaitu ez lan makala utzi 2004ak 2005erako: Ugarte baserria tinko eta zutik eustea, eta Aritzeta aldeko bailara garbia izaten mantentzea. Beraz, denok lan pixkat egin beharko dugu gutxi batzuk dena egin ez dezaten.

Errausgailuaren inguruan honek egingo lituzkeen kalteetan oinarriturik, konturatu gara osasuna harribitxi bihurtu dela guretzat, beraz, Olentzerori osasuna izatea eskatzen diot, atrebentzi handiz, zuentzat ere.

Festa zoriontsuak igaro famili zein adiskideekin batera eta urte berri on!



Kalezar



AINARA
URIBE

Aspaldiko amets bat

Haurra edo gaztea nintzenetik, askotan entzundako hiri handi baten izena da hain zuzen. Paris, handik etortzen omen ziren haur jaio berriak eta etxe batean haurra etortzen zenean honako hau esaten zuten: Paristik etorria zela, zikoina batek ekarri zuela, eta denak pozik izaten ginen haurtxo berri bat gehiago etxean ikusita. Eta horrela, sei, zazpi, zortzi eta sarritan gehiago izaten ziren sendi askotan. "Familia numerosa" izenekoak ginen garai hartan, gu ere bederatzi baginen eta galdera hau egiten genuen, "nolakoa ote da hiri handi hori?" Paris, alegia. Duela egun batzuk izan ginen bertan eta oso handia dela eta gauza asko ikus daitezkeela iruditu zait. Gabonak ere prestatuta dauzkate, eta giro ederra nabari da bertako kaleetan. Apaindura zoragarri jositako daukate, sekulako argi pila eta kolore eta

mota guztietako tramankulu eta txoratzeko adina dizdira dago. Bazter guztietan, aberastasun handiak, kultura desberdinak, jende multzo handiak, eta kanpora irten ezker, baita jende behartsu edo nolabaiteko asko ere.

Kolore ezberdineko abaniko handia. Guzti hau eta askoz gehiago eskeintzen dio bisitariari hiri honek.

Harrituta utzi ninduen jendeak nola gidatzen duen autoa. "Arco del Triunfo" izena duen plazan, laberintu handi bat zirudien inongo marrik gabe eta bakoitzak nahi zuen aldera gidatuaz, bere biziko nahasketa zegoen. Hala ere jendea aurrera bozina soinurik gabe eta haserretu gabe zihoan. Hain lasaiak ote dira bertako gidariak?

Baina gauza bat argi uzteko, zikoinak ez dute Paristik haurrik ekartzen.

Atxegalde



MARIA JESUS
URBIETA

PAKO
AGUDO

Santuenea

Berritzen ari dira parkea

Kaixo lagunak, oraingoan seguruen ale honetako albistea zein den dagoeneko jakingo duzuela. Auzora gerturatu eta segituan konturatuko gara gure parkea konpontzen ari direla. Konpondu baino gehiago, berritzen ari dira oraingoan. Benetan beharrezkoa zen horrelako berrikuntza sakon bat. Orainarte eginikoa konponketak edo hobekuntzak izan dira baina argi geratu da ez zutela asko irauten. Olentzerok beraz zerbait ekarri digu aurren, onak izan gara ala?

Orain obrak sortzen dituen arazoak ahaztu eta gero nola disfrutatuko dugun irudikatu. Seguruenik, beti bezala. Nahiz eta dena berria egin, denen gustokoa ez da izango baina behintzat ahalegina baloratu beharko dugu, gero gerokoak. Gure esku geratuko da gero ahalik eta ondoen zaintzea; ea gure parke berria urte asko igarotzen dituen berria izaten. Besterik gabe zorionak denoi eta urte berri on!



Hilaren 26an, San Esteban Txiki eguna

SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Berri on batekin natorkizue oraingo honetan. Izan ere, iritsi zaizkigu argiak gure auzo honetara. Denbora luzez eskatzen aritu ondoren, azkenean, lasai igo gaitezke iluntzean etxe aldera. Kontua da, aspaldi esana genuela argiak jarri zizkigutela, hilabete izango baita farolak ipini zituztenetik, baina piztu gabe izan ditugu orain arte. Egutero izaten genuen piztuko ote zirenaren esperantza eta azkenean lortu dugu, eta nola ez, poztekoa da.

Bertara aspaldi igo ez zaretenoi esan, Santueneako azken muturrean, bideak gora egiten duenetik hasi, eta orain dela hiruzpalau urte eraiki zuten autobus geltokiraino iristen direla farolak. Horrela, lehen genuen arazo nagusienetarikoa konponduz. Jakingo duzue, edo bestela hemen arrazoia, negu partean goiz iluntzen du eta zazpiak aldera sendategiko jendea eta pasieran ibiltzen den pertsona ugari-

rekin egiten genuen topo bidean gora, honek suposatzen zuen arriskuarekin; izan ere, iluntasunak susto ugari ematen ditu bihurgunez beteriko bide honetan. Orain, berriz, argiak bizturik, arazoak onera egin du.

Usurbildik ikusten dugunean, berriz, San Estebanerako bideak itxura berezia hartzen du, inoiz ikusi gabea... ohituko gara honetara ere. Niri, pertsonalki Erregeen Egun bezpera gogorazten dit, eta burura etortzen nola egun honetan Erregeen Kabalgata beheruntz jeisten den, jadanik ilundurik dagoela, antortxez argiturik...

Bestetik, eta gaia utziz, esan berriz ere heldu zaigula San Esteban txiki eguna. Beraz, eta hilaren 26an, igandea, hona igotzen zaretenok giro polita topatuko duzute bertan. Alde batetik meza, eta honen ondoren hamaiketako ederra.

Gabon eskea

Udazkenen bukaeran eta negu hasieran gaude, eta noski, gabonak gainean. Gabon eskean goizetik ateratzen gara ume, apaiz, katekista eta guraso batzuek ere bai, baina deialdi berezia egin nahi dizuet aginagatar guztiei animatzeko gurekin batera eskean ateratzeko, badakizue ze ilusioarekin ibiltzen diren gure umeak, kanta, soinu, lehengo usadio zaharreko ohituran... Ba zenbat eta jende gehiago, orduan eta indar gehiago, eta batez ere gure ume-garaiak gogoratzeko. Oso egun polita de eta umeak ere, etxekoek parte hartzen badute, gustorago ibiltzen dira. Hainbeste merezi dute.

San Nikolas egunean hartu genuen etxean baserriei buruz ateratako liburua. Gainetik pixka bat begiratu eta irakurri det eta oso-oso



ederra iruditu zait. Gure guraso eta helduentzat makina bat ordu pasatzeko liburua da. Mila esker egileari.

Azkenik aginagatar guztientzat nere agurrik beroenak eta datozen jaiak ondo-ondo pasa eta urte berri on!

Aginaga



MARIA
ANJELES
ARRUTI

Hemen dira Gabonak

Konturatu orduko, hemen ditugu aurten ere, gabonak ate joka. Aintzinean guztiz kristau kutsua zutenak, gaur egun alderdi askotatik begiratu daitezke festa hauek. Badira hainbat, lehengo erlijio traza horri mantentzen diotenak, baina gero eta gehiago ere, kontsumismo hutsean igarotzen dituztenak egun hauek.

Kultura eta herrialde bakoitzak, bere erak ditu egun hauek ospatzeko, eta hortaz arituko naiz ondorengo lerroetan, herrialde batzuen hainbat bitxikeria azalduz.

Adibidez, beti lotzen dira gabonak eta hotza, edota elurra; baina Australian, data hoietan 25-38 gradu zentigradu bitarteko tenperatura izan ohi dute. Baita ere, herrialde horretan, gabon gau aurretik, ganbon kanten emanaldiak izan ohi dira parke eta kiroldegietan, eta ohitura da familia osoa bertara joatea.

Italian, olentzero eta erregeen orde, urtarilaren 5ean, Befana izeneko sorgin onak ekarri ohi ditu umeentzako jostailuak, eta zorte ona izateko, italiarrak lentzeria gorria oparitzeko ohitura dute.

Errusian, eliza ortodoxoa denez nagusi, egutegia ezberdina da eliza katolikoarekin alderatuz eta



gabonak beranduago hasten dituzte. Eguberri gaueko afarian, hamabi plater izaten dira, plater bat apostolu bakoitzaren omenez.

Brasilen, Eguberriaren ospakizunean garrantzia handia du itsasoak. Hari uzten dizkiote kandelaz eta lorez apaindutako txalupak. Urak barrurantz eramaten baditu, seinale ona omen da, eta urte berria oparoa izango dela usten dute bertakoek.

Beraz, ikusten denez, gure mundua aberatsa da eta festa berezi hauek ospatzeko moduan ere, hori islatzen da.

Zubiet



MIKEL
BENGOETXEA

Energia berriztagarriak behar ditugu

Segunduro 1000 tonelada gas kaltegarri isurtzen ditugu atmosferara. Energia konbentzionalaren (ikatz, petroleoa, gas naturala eta uranioa) erabilera da honen eragile nagusia.

Energia kontsumoa etengabe gora doa gizarte honetan. Industria, etxebizitza eta garraioa bezalako sektoreak iturri konbentzionaleko energien erabilera oinarriturik daude; hala nola, garraiorako erabiltzen den energiaren %98a petroleotik dator eta elektrizitatea sortzeko berriz energia gehien nuklearra erabiltzen da.

EGUZKI-INDAR TERMIKOA

Ur bero sanitarioa eta berokuntzarako erabiltzen da. Hodiz osatutako panel edo plaka batzuen zirkuituan, ura eguzki indarraren bidez berotu eta akumuladore batzuetan gorde ondoren, etxeko zirkuitura pasatzen da.

Instalazio eta mantenimendu errezekoa da eta energi berriztagarrietan eraginkorra momentu honetan. Beste erabilera interesgarri batzuk; negutegietan, landareak ureztatzeko, igerilekuak berotzeko, etab.



EGUZKI-ENERGIA FOTOBOLTAIKOA

Plaka fotoboltaikoa elektrizitatea sortzeko erabiltzen da. Ohikoena saretik aldentuta dauden tokien elektrifikazioa izaten da: bordak, baserriak, mendi-aterpeak, telekomunikazioak, errepi-deetako senalizazioa, etab. baina gero eta gehiago dira sarera

konektatzen diren instalazioak. Hauek sareari elektrizitatea saltzen diote. Ingurugiro ikuspuntutik, plaka hauen osagaietako batzuk, beruna, nikela eta kadmioa bezalako substantzia toxikoak dira eta ondo zaindu eta birziklatu behar dira.



AEROSORGAILUA EDO HAIZE ERROTA

Haizearen energiaren bidez elektrizitatea sortzeko erabiltzen da; leku bat elektrifikatzeko edo zuzenean sarera saltzeko. Tamaina askotako errotak daude, guz-

tien helburua berdina bada ere. Eraginkorra izan dadin aerosorgailuaren kokalekua ondo ikertu behar da; haizearen norabide eta ezaugarriak ondo aztertuz.

ENERGIA MINIHIDRAULIKOA

Ur korronteen (ibaiak, urjauziak, etab.) abiadura zinetikoa aprobetxatuz elektrizitatea sortzeko erabiltzen da. Aintzinako ohitura da honakoa: errotak, burdinolak etb. eta beranduago zentralak. Usurbilen bertan adibide bat baino

gehiago ditugu.

Instalazio minihidraulikoak ibaitik ur piska bat hartu eta berriz ibaira isurtzen dute, ingurugiroari kalte minimoa eginez.

BIOMASAREN ENERGIA

Mundu mailan gehien erabiltzen den Energia Berriztagarria da, batipat, garatu gabe dauden herrialdeetan egurra (biomasa) erretzen dutelako berotzeko eta jakiak prestatzeko. Materia organikoa eta ximaurra edo zabortegetako fermentazioan lortzen den metanoa erretzean lortzen da. Instalazio hauek atmosferara CO₂ -a isurtzen dute.

Usurbilgo Lanbide Eskolaren energia berriztagarrien zentroan; eguzki-energia termikoa, eguzki-energia fotoboltaikoa, energia geotermikoa eta haize energia ustiatzeko ekipamentuak dituzte. Bertako proiektuaren koordinatzailea den Xabier Estebanen arabera, gero eta jende gehiago hurbiltzen da instala-

kuntza hauek ikustera. Antzematen da jendearengan sentsibilizazioa gai honen inguruan eta azken urteetan ekipamentu hauen instalakuntzak gora egin du.

Bere ustez, ez dira sortu gaur egungo energia eskaerari aurre egiteko, hau murrizteko baizik. Honekin batera, energia aurrezte eta eraginkortasunaren aldeko apustua bultzatu behar dira.

Eguzki energiaren inguruan dagoen uste errotua da zonalde honetan eguzki gutxi dugula mota honetako energia lortzeko, bere ustez, beste leku lehorrago batzuetan bezain eraginkorra ez bada ere, hasiera batean pentsatzen zena baino energia gehiago lortzen da.

Nora joan gaitezke informazio edo laguntza bila?

ERAKUNDEA	ESKANTZA
EEE/EVE –Energiaren Euskal Erakundea www.eve.es	Eusko Jaularitzaren diru laguntzak bideratzen ditu.
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ZENTROA Usurbilgo Lanbide Eskola	Energia berriztagarrien instalakuntzarako aholkularitza. Prestakuntza ikastaroak. Erakustaldi didaktiko-teknikoak.
ARGI TA GARBI elkarte www.argitagarbi.com	Laguntza juridiko eta teknikoak energia berriztagarriak instalatzeko. Elkarte baten abantailak.

Elkarrizketa !

Kontxi Argaiak Lasturko Arruan-Haundi baserrian energia berriztagarriekin duten esperientzia kontatu digu.

NOAUA. Noiz jarri zenituzten energia berriztagarria lortzeko instalazioak?
Kontxi Argia. Orain dela 3 urte.

N. Zein sistema dituzue? Lortutako energia auto-kontsumorako da hala sare-ra saltzen duzue?

K. A. Eguzkia energia lortzeko plaka fotoboltaikoz osaturiko 2 instalazio ditugu eta haize errota bat. Eguzki energia sarera saltzen dugu eta haize errotaren bidez lortutakoa auto-kontsumorako da.

N. Zein arrazoik bultzatu zintuzten energi berriztagarriak lortzeko instalakuntzak jartzera?

K. A. Guzti hau martxan jartzen duen motorra sentsibilizazio ekologikoa da.

N. Etxean energia berriztagarria sortzearen abantailak zeintzuk dira? Eta buru-hausterik izan al duzue?

K. A. Abantaila nagusiak ekologiko, pedagogiko eta ekonomikoak dira, hau da; batetik, baserrirako behar dugun indarra modu garbian lortzen dugu, ingurua kutsatu gabe. Bestetik, honelako instalakuntza bat jartzean energiaren erabileraz kontzienteago egiten gara, egun horretan zenbat energia lortu dugun eta zenbat gastatzen ari garen ikusten baitugu. Izan ere, gaur egun gehienak energiaren erabileraz ez dira kontziente, inkohezientzia da gehiegizko energia gastuaren eragile. Eta noski abantaila ekonomikoa ere garrantzitsua da, honekin ez da dirurik egiten,



ARRUAN HAUNDI BASERRIAN ENERGIA GARBIA SORTZEN DUTE.

baina baserrian ditugun gastuak gutxitu eta autosufizienteago egitea lortu dugu. Buru-hauste asko izan ditugu instalakuntza hauekin, instalakuntza gaizki egin ziguten eta zenbait aparailu, gainera, fabrikako akatsekin etorri ziren. Dena teknikoen esku utzi genuen, baina hauek ez zeuden behar bezela prestatuta. Gaur egun hala ere, ez dago arazo hauetatik pasa beharrik. Argi ta Garbi energia berriztagarrien aldeko elkartearen laguntza eskaintzen diogu energia berriztagarriak jarri nahi dituen edonori.

N. Zein da Argi ta Garbi elkartearen lana?

K. A. Orain 2 urte sortutako taldea da. Energia berriztagarriak jarri eta hasiera hartan izandako arazoak zirela eta elkartzearabaki genuen.

Bertan, instalakuntza berriak egin nahi dituzten bazkideak elkartu eta abantailak lortzen ditugu. Eskaerak batera eginez, instalakuntzen prezioa asko jeistea lortu dugu. Esperientzia dugun bazkideon eta taldeko teknikoen laguntza ere oso garrantzitsua da.

N. Zein da inguru honetan hobekien funtzionatzen duen sistema?

K. A. Termikoa. Eraginkorrena da, instalakuntza ez da horren garestia eta ulertzeko errezena da. Energia berriztagarriak ezagutzen ez dituenarentzat hasteko egokiena iruditzen zait.

Atal honen egileak: Aitziber Matxain, Ametza Larrañaga. Usurbilgo Udalaren Nekazaritza eta Garapen Ekonomiko Sailaren babesean.

Zumartegin izandako leherketak kalte arinak eragin zituen

Abenduaren 11etik 12rako gauan leherketa izan zen Zumartegi industria-gunean, "Ventanas San Miguel" lantegiaren atarian. Leherketak, dena den, kalte txikiak eragin zituen. Biharamunean, konponketa-lanak martxan zeuden eta lantegia normaltasunez ari zen lanean.

Gipuzkoako bi enpresetan zartarazitako bonbek tenporizadorea zuten, hala zioen Herrizaingo Sailak. Javier Balza Sailburuak adierazi zuenez, ETA da leherketa hauen erantzule. Antza denez, abenduaren 12an zarta-

razitako bi bonbek (bat Ormaiztegin; bestea Usurbilen) tenporizadorea zuten. Hori horrela, hasiera batean zegoen hipotesia baztertu egin dute adituek, alegia, etxean egindako lehergaiak zirela. Ertzaintza lehergai-luen osaketa aztertzen ari da. Eztandak igande goizaldean, 2:30ak aldera, eman ziren Ormaiztegiko Zumarralde auzoan eta Usurbilgo Zumartegi industria-gunean dagoen "Ventanas San Miguel" lantegian. Eztandak azken lantegi honetako sarrerako atea hondatu zuen. Esan bezala, detonagailu bat ere aurkitu zuen Ertzaintzak.



LEHERKETA ABENDUAREN 12KO GOIZEAN IZAN ZEN. ASTELEHENEAN, NORMALTASUNEZ ARI ZIREN LANEAN. IRUDIAN, BEHARGIN BAT LANTEGIKO ATARIA KONPONTZEN.

Batasunak bere proposamena aurkeztuko du herrian

Abenduaren 17an Batasunak "Orain Herria, Orain Bakea" proposamena aurkeztuko du Udarregi Ikastolan, arratsaldeko 19:00etan hasiko den ekitaldian. Jon Gorrotxategi Batasunako mahaikidearekin batera, herriko hainbat kazetarik hartuko dute parte mahai-inguruan. Herritarrek edozein zalantza argitzeko aukera izango dute.

Usurbilgo Batasunak bestelako deialdiak ere egin ditu. Abenduaren 24an, arratsaldeko 16:00etan, Euskal Presoak Euskal Herriratzeko eskatuz Olentzero izango da herrian. Hitzordua, Aitzaga aurrean, arratsaldeko 16:00etan.

Gudariei omenaldia, abenduaren 30ean

Abenduaren 30ean, aldiz, arratsaldeko 20:00etan, herriko gudari hilei urtero egiten zaien omenaldia egingo zaie.

Ikastaroak langabetuentzat

Lanbide Eskolak langabetuentzako ikastaro hauek antolatatu ditu:

- Ordenadore bidezko diseinua.
- Energi berriztatzaile eta behe tentsioko elektrizitateko langilea. Energi berriztatzaile, klimatizazio eta bero instalazioen muntaia eta mantentzea.

Ikastaro hauek doanekoak dira eta bendoan eta urtarilean hasiko dira.

Interesatuak lehen bai lehen izena eman ikastetxeko telefono zenbaki honetara deituz: 943 364 600.

LANBIDE ESKOLA

Etarte bidea, 9 (Zubieta)

Tel: 943.36.46.00 Fax: 943.36.66.89

e-mail: adfmr@lhusurbil.com

**MIKEL
IZ GI E**

ELEKTIZITTE

el 11 - 11 11

LATKA
Kutxa denda

Janari prekozinatuak
Kongelatuak
Bertako produktuak

Zubizarrena 2, Usurbil Tel. 666 301 803

BESTE ALE BAT ESKUMATU NAMI!
GUNE NGOTZAKI PASA

2005

Zendoia

Kale Nagusia 25 Tel. 943 37 40 21

Eta orain, posta zerbitzua noaua.com web orrialdean

Bazkiden Batzar Orokorrean adostu bezala, azken hilabeteotan arreta berezia eskaini diogu web orrialdeari. Albistegia edizio jarraituan ipini eta gero, orain, posta zerbitzua aurkezteko moduan gara. Inbertsioa ez da handia izan eta, trukean, usurbildar orori e-posta berri bat zabaltzeko aukera eskaintzeko moduan gara. Martxan jarri dugun zerbitzu berri honi esker, usurbil.com bidezko posta doan eskuratzeko moduan zara. Zeren zain zaude?

Web bidezko posta-zerbitzu honek, Interneten sartzeko prestakua dagoen edozein makinatatik, posta elektronikoa erabiltzeko funtzio guztiak eskaintzen dizkizu: mezuak irakurtzea, bidaltzea, birbidaltzea, mezuei erantsitako fitxategiak jasotzea eta igortzea, mezuak antolatzeko karpetak erabiltzea...

Nola izan dezaket nire posta?

Hiru urratsetan lortuko duzu zure posta.

1. Lehenik eta behin, ireki zure nabigatzailea (Netscape, Internet Explorer, etab).

2. Bigarrenik, noaua.com posta zerbitzuan erregistratzeko orrira jo: www.noaua.com/posta/erregistratu.cfm Hor azalduko zaizkizun datuak bete.



WWW.NOAUA.COM/POSTA/ERREGISTRATU.CFM KLIKATU ETA ZABALDU ZURE POSTA HELBIDEA.

Sakatu "Erregistratu" botoia eta martxan izango duzu posta helbidea.

3. Hirugarrenik, ongi etorria ematen dizun orri batera iritsiko zara. Bertan aukera ematen zaizu zure kontuan sartzeko ("Posta zerbitzuan" klik eginez).

Nola begira dezaket mezurik jaso ote dudan?

Behin zure posta helbidea erregistratu ondoren, posta zerbitzuan sartzen zaren bakoitzean zure erabiltzaile-izena eta pasahitza teklatu beharko dituzu. Hori egin ondoren, mezuen orrialdera iritsiko zara.

Zerbitzarian zuretzat dauden mezu

guztien zerrenda erakutsiko dizu orri honek. Mezuak irakurri ondoren, aukera duzu ezabatzeko nahiz bertan uzteko. Ez baduzu ezabatzea edo lekuz aldatzea agintzen, dagoen lekuan bertan geratzeko da mezua.

Lehenbizikoz sartzen zarenean, mezu-zerrenda eguneratua aurkituko duzu. Geroago berriz itzultzen bazara, eta ikusi nahi baduzu ea mezu berriren bat heldu zaizun, sakatu "Buzoia begiratu" botoia, zerrenda eguneratzeko.

Mezu bat bidaltzeko, sakatu "Mezu berria idatzi" botoia. Ikusiko duzun moduan, oso erraza da, gainontzeko posta zerbitzuen antzekoa.

Doan eskura dezakezu zure helbide elektroniko berria

Web orrialdea gaurkotu zuen etxe berdinarekin, Plazagunea SL enpresarekin ipini dugu martxan posta zerbitzua. Jabetuko zaren moduan, posta helbidea kudeatzea oso erraza da. Arazorik baduzu, "Laguntza" hitzan klikatu ezazu, eta azalpen guztiak jasoko dituzu.

Zure erabiltzaile-izena eta pasahitza teklatu ondoren, zure kontuari dagokion mezuen zerrenda azalduko zaizu. Mezuak karpeta ezberdinetan antolatu ditzakezu. Ez hori bakarrik, "Helbidetegia" atalean, zuk nahi dituzun helbideak memorizatu ahal izango dituzu. Ez ahaztu doaneko zerbitzua dela hau.



Kafe
berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70



urtinea

L r k - L r l n r k

L r s r l k - K r k

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55

“Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” liburuari harrera paregabea egin zaio

Usurbilgo udalbatza aretoa txiki geratu zen. Hitzordua arratsaldeko 19:00etan ipini genuen. Eta gure harridurarako, lagun asko izan ziren abenduaren 10eko aurkezpenera hurbildu zirenak. Liburu bera ere, ondo ari da saltzen. Aurreko alean liburuia plazaratzear zela esan genuenetik, asko izan dira NOAUA!ko bulegotik pasa diren herritarrak. Salgai ipini dugunetik, dendetan ere arrakasta handia izan du liburuak.

Aurkezpen ekitaldian, Ibon Beristain Soziokultura Batzordeko zinegotzi arduraduna eta NOAUA!ko kide diren Ana Aizpurua, Jakoba Errekondo eta Iñaki Salsamendi izan ziren. Hauekin batera, nola ez, liburuaren egilea, Josu Tellabide bera.

Hitza hartzen lehena, NOAUA!ko lehendakari den Ana Aizpurua izan zen. Ezer baino lehen, ongi etorri beroa eskaini zien bertaratutako denei: “Eskerrik asko benetan, gure gonbiteari hain harre-ra ona emateagatik”. Udalbatza aretoa jendez gainezka zen. Nora goazen jakiteko, derrigorrez nondik gatozen jakin behar dugula esanez hitza eman zion Ana Aizpurua. Ibon Beristaini, Soziokultura Batzordeko zinegotzi arduradunari.

“Lan interesgarria”

“Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” liburuaren egitasmoa aspalditik datorrela nabarmendu zuen Ibon Beristainek: “Aurreko urtetatik, aurreko legealdietatik datorren lan bat da. Nire eskuetara iritsi zenean, bukatzeaz zen liburuia. Lana aurkeztu zidatenean, interesgarria iruditu zitzaidan. Gure ustez, modu dotore batean plazaratzea merezi zuen lan honek.



NOAUA!KO LEHENDAKARI DEN ANA AIZPURUA ETA SOZIOKULTURA BATZORDEKO ZINEGOTZI ARDURADUN DEN IBON BERISTAINekin batera, JOSU TELLABIDE IDAZLEA ETA JAKOBA ERREKONDO ETA IÑAKI SALSAMENDI LIBURUAREN KOORDINATZAILEAK IZAN ZIREN AUKEZPEN EKITALDIAN.

Udaletxeak ere ikusi zuen ez zela aspaldi Usurbili buruzko argitalpenik egin. Horrelako lanak, gainera, ez dira egunero argitaratzen”. Udalaren partehartzea babesle modukoa izan dela aitortu ondoren, idazlearen txanda iritsi zen.

“Meritua zuena da”

Jendaurrean eta hitzaldietan aritua izan arren, Josu Tellabide urduri azaldu zen “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” liburuaren aurkezpenean. Omendua eta maitatua sentitzen zela esanez hasi zuen bere hitzaldia: “egia esan, borondate osoz ahal izan dudan guztia egin dut, baina meritua zuena da. Hasiera batetik, zuen laguntza erabatekoa izan baita”, aurrez aurre zituen entzuleei zuzenduz esan zituen lehen hitzak. Duela hiru urte hasi

zen lanean, ehundaka elkarrizketa egin ditu ordutik, baina ondo gogoan du lehen elkarrizketa. Honela azaldu zuen jendaurrean Josu Tellabidek: “Ibarrola Haundin egin nuen lehen elkarrizketa, 2001eko otsailean. Maria Matista Aburruza andereari, berari egin nion lehen elkarrizketa. Miresgarriak eta maitagarriak dira pertsona horiek. Tratamendu berezia eman diet hauei”.

Segidan, liburuak duen garrantzia sakondu zuen: “beste herri batzuetan egin dira tankerako liburuak, baina lan hone-tan ondare bat dago gordeta. Hori izan da nire ahalegin handiena, lehengo zaharren mundua liburu honetan jasotzea; bizipo-zak, festak, bertsoak, txisteak... baita istri-puak ere”. Aurreko alean aipatu bezala, bitxikeri ugari dago 800 orrialdeetan

Liburuia jada salgai

- Lizardi liburutenda.
- Laurok liburutenda.
- Kioskoa.
- Txapartegi harategia (Aginaga).
- Eiza denda.
- Peña Pagola elkarte.

- Alkartasuna nekazal kooperatiba.
- Zumeta jatetxea.
- Barazar jatetxea.
- Alamandegi jatetxea.
- Santueneako Esnaola denda.
- NOAUA! Kultur Elkatea.

Salneurria: 38 euro.

NOAUA!ko bazkideek: 25 euro *.

* Bazkideek, NOAUA! Kultur Elkarteko bulegotik pasa beharko dute (astelehenetik ostiralera, bulego orduetan).

barrena. Egilea bera izan bada ere, bidean izan dituen laguntzaile denei eskerrak eman zizkien: “ni zuen istorioen *eskribanoa* izan naiz. Informatzaile ugari izan ditut, eta horietako batzuk asko lagundu didate. Eskerrak eman nahi dizkiet Aginagako Maria Pilarri eta Joxe Leoni, Urdaigako Teresari eta Pellori, Kaleberriko Joxepiri, Margariri, Maria Matistari, Felixi, Luisi, Txikierdiko Joxemariri, Pello eta Mari Karmeni, Zubietan Martini, Arregitarrei, Rosa Mariri... eta NOAUA!n lagundu nautenei, bereziki, Jakoba Errekondo eta Iñaki Salsamendiri”.

Josu Tellabide etnografoa da. Baserri baserri ibili ohi da. Eta zaharrei entzundakoa aipatu zuen aurkezpenean: “askotan esan izan didate: gure mundua bukatu da. Gure etxeko gazteek ez dakite segan. Liburu hau ez dadila bakarrik zaharren poztasuna izan, zahar eta gazteen arteko lotura egin nahiko genuke”. Zentzu horretan, kezkatu azaldu zen Josu Tellabide: “baserria galtzen bazaigu, Usurbil galduko da. Baserriari loturik jarraitu behar dugu. Ez badugu gure lurra defendatzen, txikitu egingo digute. Autobiak direla, abiadura handiko trena dela, inzineradora... Gure

bizimoduarekin jarraitu behar dugu, baina gure lurra ere zaindu egin behar dugu. Gure kultura bezalaxe; gure euskara baserritarrek gorde dute”.

“Garrantzia usurbildarrei eman diegu”

Azkenik, Jakoba Errekondok NOAUA!ren izenean bi hitz egin zituen. Errekondoren esanetan, pertsonai, usurbildarrei eman zaie garrantzia: “liburu honetan nabarmentzeko gauza inportantea izenburua bera da, “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak”. Baserria ez da paisajean azaldu den etxe bat edo lantoki bat. Pertsonak, lagunak egon dira hor atzean. Lagun horiek Usurbil osoaren paisajea moldatu dute. Usurbilen ez dago metro karratu bat usurbildarrok egin, moldatu, hustiatu ez duguna. Horren laburpena da liburu hau. Horregatik garrantzia eman diogu pertsonai, usurbildarrei”.

Protagonista edo sustatzaile, lagun askoren ahaleginak pilatu dira hizpide dugun liburuan. Jakoba Errekondok adierazi bezala, “liburu hau ez da hiru kilo paper, 1.200 argazki... hemen jende pilo batek egin du lan. NOAUA! Kultur



UDALBATZA ARETOA TXIKI GERATU ZEN LIBURUAREN AURKEZPENEAN.

Elkarteak duela sei urte sortutako beka deialdi baten ondorio da lan hau”. Hasiera batean, Ziortza gazte taldeak hartu zuen bere gain, baina lan handia zen Ziortzarentzat eta ondoren Josu Tellabide arduratu zen egitasmoaz. NOAUA!n bertan, eta NOAUA!tik kanpo ere, jende askok lagundu du. Azkenik, liburuak ate asko ireki dituela iradoki zuen Errekondok: “300 informatzaileen izenak daude, baina ez dugu ahaztu behar 7.000 usurbildarren izenak daudela liburuan. Gerorako geratu behar duena. Baina liburu hau zerbaiten hasiera behar du izan. Hemen istorio askoren hasiera dago”.

Txalo artean amaitu zen liburuaren aurkezpenean.

BADATOR, BADATOR...
OLENTZEROREKIN BATERA

LAUKOTE
OKINDEGI - KAFETEGI
BERRIA!



Puntapax kalea, 16- behea

Kooperatiba bilakatu da Udarregi Ikastola

Partaide ikastolen elkarteak, iaz, kooperatiban bihurtzeko aholkua helerazi zien partaidetza sozialemo ikastolei. Tartean, Udarregi Ikastolari. Xabin Aizarna zuzendariak eman dizkigu eraldaketaren xehetasun guztiak.

NOAUA. Nondik dator kooperatibara eraldatzeko egitasmoa?

Xabin Aizarna. Hezkuntza legediak, bai estatalak baita autonomikoak ere, hezkuntza kooperatibei trataera berezia ematen die. Kooperatibei berariazko dirulaguntzak ematen zaizkie beren proiektuak aurrera ateratzeko. Dirulaguntza hauek zuzenak izan daitezke (subentzioak) eta baita zeharkakoak ere, fiskalitate aldetik. Zergatik? Hezkuntza kooperatibek (gure kasua, esate baterako) normalean hiru ezaugarri biltzen dituzte: batetik, titularrak gurasoak dira, bigarrenik, irabazi asmorik gabekoak dira, eta hirugarrenik, inoiz desegiten badira, kooperatibek izan dezakeen ondarea erakunde publiko baten esku geratzen da.

Era honetan, gainera, Partaidek ikastolen izaera korporatiboa indartu nahi zuen. Ikastolak mugimendu bagara, eta denok zuzenbide-izaera berbera izango bagenu, sendotasun handiagoa izango luke Partaidek.

NOAUA. Jada kooperatiba izaera du Udarregik?

X. A. Konstituzio fasean dagoen kooperatiba gara une honetan. Azaroaren 25ean ez-ohiko batzar orokorra egin genuen eta batzar horretan Udarregi Patronatua Kooperatiban eraldatzea erabaki genuen. Aurrerantzean, kooperatiba izango gara.

Orain, eskritura publiko batean jaso behar dugu eraldaketa eta, beste hainbat dokumenturekin batera, kooperatiba-erregistroan aurkeztuko dugu. Handik hilabete batzuetara, jasoko ditugu onartuak estatutuak eta gainerako dokumentazioa.

N. Zer nolako harrera egin zaio proposamen honi Udarregin bertan?

X. A. Juntan ikusi zen batetik, ez ligukeela aldaketa handirik eragingo. Eta bestetik, laguntza gehiago jasotzeko bazen eta ikastolen mugimendua sendotzeko bazen, ba aurrera. Estatutuen zirriborro bat egin genuen. Zirriborro hori egiteko lan-talde bat osatu zen eta lan-talde honek beste hainbat ikastoletako estatutuak bildu eta aztertu ditu, artean Udarregi Ikastolaren berezitasunak jasoaz. Aldi berean, lege-gizon bulego batekin kontraste-lana egin dugu.

Ondoren, estatutuen zirriborroa bidali zitzaizen bazkideei; zuzenketak eta iradoki-



ALDAKETAK EZ DU ERAGINIK IZANGO EGUNEROKO FUNTZIONAMENDUAN.

zunak egiteko aukera eskainiz. Epealdi horretan, ez dugu zuzenketak egiteko prozedura martxan jarri behar izan.

N. Gurasoari zertan eragiten die?

X. A. Gurasoek ez dute eguneroko bizi-tzan inongo aldaketarik sumatuko. Patronatu zena kooperatiban bilakatu da, baina ez du eraginik izango eguneroko funtzionamenduan.

N. Eta Udarregiko langileei?

X. A. Langileen egoera laborala ez da aldatuko. Orain arte, Patronatuaren enplegatuak ginen. Orain, kooperatibaren enplegatuak izatera pasako gara.

Udal langileen lan-hitzarmena, kolokan

Udal langileek udal gobernuarekin adostu zuten akordioaren aurka azaldu berri da Estatuko Abokatua. Indarrean jarraitzen duen arren, epaitegian da jada lan-hitzarmena. Udala, parte bezala agertuko da ihardunbide judizialean. Langileek ere, gauza bera egin dezakete. Hala aitortu digu Xabier Olanok, udal kontuhartzaileak.

NOAUA. Udako ika-mikatik dator Estatuko Abokatuaren inpuignazio hau?

Xabier Olano. Askok kostata eta bilera asko egin eta gero, adostasun bat lortu zen langileen eta udal gobernuaren artean. Otsailean hasi ginen eta ekaina arte 8-10 bilera egin genituen. Ekainaren 24an aurre-akordio bat sinatu genuen langileen ordezkari eta udal gobernuaren taldearen

artean. Plenoak akordio hori bere egin zuen uztailaren 30ean. EAK akordioa defendatu zuen, EAJ-PNV aurka azaldu zen eta beste bi taldeak abstenitu egin ziren. Berdinketaren aurrean, kalitatezko botoarekin akordioa aurrera ateratzea erabaki zuen alkateak.

Baina joko zikina ere egon da tartean. Edozein taldek, edozein zinegotzik, aurka bozkatzeko duen akordioetan errekurritzeko aukera du. Hemen, zilegitasun osoz, EAJ-PNVk akordioa egokia ez zela pentsatzen bazuen, tribunaletara jo eta errekurritzeko aukera zuen. Hori koherentea izango zen. Baina ez zuen hori egin. Abuztuaren lehen egunetan, prentsara filtrazio interesatua egin zen. Garbi dago nork egin zuen hori. Eta filtrazio horren ondoren, Estatuko Abokatua sartu da tartean.

N. Zertan oinarritzen da Estatuko Abokatuaren errekurtsioa?

X. O. Bitxia da baina Estatuko Abokatuak errekurritzen duena akordioan ez den zerbaitekin izan da. Estatuko Abokatuaren salaketa bi argudioetan oinarritzen da. Batetik, lanorduak astean 32 direla. Bestetik, soldata igoera %2a baino gehiago dela, Estatuko aurrekontuetan %2a bakarrik aurreikusten denean. Ez bata eta ez bestea ez dira egi osoak. Akordioan ez da lanordurik finkatzen. Soldata igoerari dagokionez, berez, kontzeptuen igoera %2 besterik ez da igotzen. Hortik gorakoa, lanpostuen osagarriak dira. Hori da urtero administrazioan eta leku guztietan hartzen den ihesbidea. EUDEL-en eta udal guztietan onartzen ari diren akordioa eta gurea oso antzekoak dira, ia berdinak.

Iñaki Errasti, gustura Astilleron

Errazena Orion geratzea zen. Kontratua eten beharrik ez eta soldata Berriolan lana eginez irabaziko zuen. Baina behin behineko lan kontratua zuen. Hortxe alaketarako lehen arrazoia. Denboraldi amaieran, gainera, guztiz tentagarria zen eskaintza egin zion Astillerok. Arraunlari izateko baldintza duinak. Bigarren hau ere, pisuzko arrazoia. Afizioa ofizioan bilakatzeko aukera paregabea zuen. Horrelako apostua 25 urterekin ez bada egiten, noiz bestela?

Jada debuta egin du Iñaki Errastik. Aurreko astebukaeran, estropada batean hartu zuen parte. Ez du kontratua sinatu oraindik, baina Oriok Astillerori emandako baimenarekin lehiatu zen. Seinale ona, dudarik gabe.

NOAUA. Orion kontratua izanda, nolatan eman duzu Astillerorako saltoa?

Iñaki Errasti. Denboraldi amaieran deitu zidaten Astillerotik eta hitz egiteko gelditu ginen. Hitz egiteko bildu ginenean, espero ez nituen baldintzak azaldu zizkidaten eta ezin nuen ezezkorik esan. Bestetik, niretzat ere erronka handia da. Azken bi Kontxak irabazi ditu talde honek, beraz, kirol ikuspegitik aurrerapauso bat eman dudala uste dut. Hasieran, joan-etorrian ibiltzeko asmoa nuen. Baina buelta batzuk eman nizkion proposamenari, eta lan finkorik ez nuen, gutxienez urtebetez arraunean aritzea erabaki dut. Orain arraunarekin disfrutatzeko aukera daukat, gustatzen zaidana egiten.



JADA ASTILLERON BIZI DA ERRASTI.

N. Astillerok zure aldeko apostua egin du. Zugan maila handiko arraunlaria ikusiko zuen. Pozgarria izango da ezta?

I. E. Baloratuta sentitzen zara. Egia esan, ez nuen Astilleroren deia espero.

Nolako kluba topatu duzu Astilleron?

I. E. Harrituta geratu nintzen han topatu nituen instalazioekin. Orion bezalako azpiegiturarik, materialik, antolaketa... ez dago. Ezin dira parekatu. Han momentukoa bizi dute. Datorren urtean dirua bukatzen bada ez dakizu zertan geratuko den arraun mundua han.

N. Aste batzuk egin dituzu han. Ba al da arraunzaletasunik Astilleron?

I. E. Orion baino gutxiago. Lasaiagoa da dena. Orain dago onenean eta ez dago hemen dagoen presio hori.

N. Zer topatu duzu Astilleron?

I. E. Orion lau urtez nirekin ibili zen asturiar bat bada, Enrique Lopez. Gainontzekoak taldekide berriak dira niretzat.

N. Eta zer utzi duzu Orion?

I. E. Lagun asko. Jende berdina ibili gara azken urteotan. Oso giro ona genuen. Pena, baina oraindik kontaktua mantentzen dut arraunlari askorekin.

N. Zer moduz moldatzen zara Astilleron?

Ondo. Ez dut han denbora asko egin oraindik. Baina lasai bizi naiz. Goizetan libre samar nabil. Arratsaldean, aldis, normal entrenatzen dut. Ametsetan nago oraindik. Jarri didaten etxea ere oso ondo dago.

Aginagatik ez hain urrun

ACT ligan iaz ezarri zen araua batek dioenez, kontratua duen arraunlari bat fitxatu nahi duen klubak bi milioi pezeta ordaindu behar ditu. Honen arabera, Astillerok bi milioi pezeta ordainduko beharko lizkioke Oriori. Baina ez dirudi bi taldeen artean arazorik sortuko denik eta oraingoz akordiorik sinatu ez badu ere, Iñaki Errastik seguru ikusten du bere burua Astilleron. Han jarri dioten etxetik Aginagara ordu eta hiru laurdenean dago. Beraz, ia ia etxean bezala.

Alustiza txapeldun

Nafarroako Irekiko lehen txapeldunean bilakatu da Martin Alustiza pilotaria.

Nafarroako lau t'erdiko irekiaren aurreneko finala ikusgarria izan zen. Martin Alustiza eta Carlos Armendariz arteko lehia bizia izan zen. Lekuko, Labrit pilotalekua. Azkenean, txapela eta 3.000 euroko saria Alustizak etxera-tu zituen.

Mendi Astea, azken txanpan

Abenduak 18, larunbata

Mendi irteera goiz partean eta ondoren elkarteko urteko bazkaria.


Mendi ibilaldiaren irteera ordua goizko 8:00etan izango da frontoi atzetik. Autobusez Alkizaraino joan eta handik oinez Erniora igo eta gero Albizturra jeitsiko dira bazkaltzera. Babarrun jan ona egin eta buelta berriro autobusez egingo da Usurbila.

Txartelak Txiriboga tabernan egongo dira salgai (autobusa eta bazkaria barne). Salneurria: 25 euro. Erostekeo azken eguna, abenduaren 16a.

Abenduak 19, igandea

Umeen ibilaldi neurtua. Irteera goizko 9:00etan emango zaio frontoitik bertatik.

Antolatzailea: Andatza KKE.



“Ana-Errekan”

Kaixo denoi!

Udarregi Ikastolako haurrak gara argazki hauetako protagonista. Azaroaren erdialdean “Ana-Errekara” joan ginen guztiok udazkena aprobeztatzuz, hostoak zapaldu eta urte garai honetako abestiak kantatzera. Primeran pasa genuen, han ibili ginen denok hostoak bilduz eta baita zapaltzen ere.

Han, basoan, Jaionek gitarra jotzen zuen guk abesten genuen bitartean.



Olerkia



Udazkenero bezala, hostoak
Elkarren gainean,
Euriak minik har ez dezan
Lur bigunean.

J. Kruz Igerabide

SOLOZABAL AUTOESKOLA



- Klase teoriko zein praktikokoak, norberak nahi dituenetan
- Klase teorikoak ikusentzunezko abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak gurraiatzeko nazio arretako agentzia zihurta agiria lortzeko ikastaroak
- Garraio arriskutsuen ikastaroak
- Gidatzeko karnet guztiak

Kale Nagusia 1.eif.: 943 376 936 Usurbil 20170



Noaúa!!
HAMABOSTERARIA

Usurbilgo aldizkaria

4000 publikatzaile jarri nahi baduzue:

publicitat@noaúa.com

www.noaúa.com

Berdaherri, 3 Tel.: 943 368 321

M N CENILL

... k r - n t u r - t
... t l l n k
... r z t t z - l n k
... n t u r - l n k r h r

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL

MOBILA: 629 46 09 66

ARRAINDEGIA

PELLO

... x K I ...
T I 3 21
J S U L

IGELTSE ITZ
t
INTU

Jan 17 11 7 53 55
2 1 57 51 5

Ingurutz - Gasa - Berokutza

J. r z

Bizkarra 1, 1.esk. 37 29 37 - 659 602789

Ganbara

Opari, justatze, etxeko treneria

0,75 euro
ekitaldi bakoitzeko

Mateo Arana 4 - Usurbil Tel.: 943 36 55 49

MONTEKATZ

ALABAU

NOAUA!ko LEHIAKETA!!



NIRE BIZIKLETA ETA NI
(Seve Calleja-Jose Tellaeche)

ARDI BELTZA
(Roser Capdevilla)

SMAUG DRAGOIAREN ALTXORRA
(Agustin Fernandez Paz-Fran Jaraba)

EHIZTARIA
(M. Angels Gardella-Joan Antoni Poch)

GAU BAT TXALUPAN
(Amelia Benet-Carme Peris)

Gabon hauetan etxeko txikiek euskaraz irakurtzeko aukera izango dute bost liburu eder hauek irabazten badituzte.

Ea asmatzen duzuen galderatxo hau!!

Ze izenburu darama Noaua! Kultur Elkarteak argiratu berri duen liburuak?

- 1) *Usurbilgo Baserriak*
- 2) *Usurbilgo Baserritarrak*
- 3) *Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak*

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **ABENDUAK 24**
Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170
Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkartearen buzoian edo
e-posta: erredakzioa@noaua.com


194. lehiaketako erantzuna:

Ze izen du Txoknalden azaroaren 12an
surtu hartu zuen baserriak?
BEKOERROTA

Irabazlea Xabier Kamino Arruti izan da.
TTAKUNPA taldearen eta ANGEL UNZU-ren
musika cd-ak irabazi ditu. **ZORIONAK!**
Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan.



Denborapasa!

	HERRIKO ERMITA		Ene	Arrain mota	Harroina	Ezagutzen nuen
	Alferkeria		Garaitza	Hesola	Putrea	
	Eramaten naute					
	Bururdi					
Senidea	Egoistak					
Ehun mota	Lotan					
			Bokala	Jardun		
			Zaude	Utik!		
Bortitz bihurtu					Musika nota	
Musika nota					13	
	Gizon izena			Diruaren hotsa		
	Begirada			Gipuzkoa-ko herria		
Gizon izena	Gehiegi			Kasik		Galioa
	Ukatzeko			Kontso. bustia		
		Elkarte			Kontso- nantea	
		Iodoa			Nitro- genoa	
Sustraia, erroa			Urteen kopurua			

Eusko Tren-en tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan
bakarrrik

/ Zerbitzu
berria, egunero

* Astegunetan
bakarrrik

/ Zerbitzu
berria, egunero

Goardiako farmaziak

Abenduak 16, osteguna
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Gorospe R.Arregi 12 Andoain

Abenduak 17, ostirala
E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 18, larunbata
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
/ Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Abenduak 19, igandea
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Abenduak 20, astelehena
E/G: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte

Abenduak 21, asteartea
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Abenduak 22, asteazkena
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Oa, Kontzeju Zaharra 1 Usurbil

Abenduak 23, osteguna
E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Tanko, Idiazabal 39 Urnieta

Abenduak 24, ostirala
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Gomez, Nagusia 14 Hernani

Abenduak 25, larunbata
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

Abenduak 26, igandea
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

Abenduak 27, astelehena
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Abenduak 28, asteartea
E: Acha-Orbea, Hipodroma 6 Lasarte
G: Correa, Perkaiztegi 8 Hernani

Abenduak 29, asteazkena
E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Aizpuru, Latxunbe Berri 11 Hernani

Abenduak 30, osteguna
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Etxebeste, Elkano 9 Hernani

Abenduak 31, ostirala
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
/ Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira.

E:Egunez G:Gauzez E/G:Egunez eta gauzez

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Eusko Tren-en autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05		12.30
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05		13.30
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55		13.30	13.35	13.55*
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05		14.30
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55		14.30	14.35	15.00
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05		15.30
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40		17.05	17.25		15.30	15.35	15.55*
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05		16.30
17.40		18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30			16.30	16.35	17.00
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05		17.30
18.40		19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05		18.30
19.00	19.25	19.35	19.55	17.45	18.05	18.15	18.40
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05		19.30
20.00	20.20	20.30		18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.25	20.35	20.55#		19.30	19.35	20.00
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05		20.30
21.00	21.25	21.35	21.55	19.45	20.05	20.15	20.40
22.15	22.35	22.45	23.05	20.45	21.05	21.15	21.40
22.00	22.25	22.35	22.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.30	22.55	23.05	23.25	21.45	22.05	22.15	22.40
00:00		00.25	00.45	23.15	23.35		00.00
02:00		02.25	02.45	01.15	01.35		02.00
04:00		04.25	04.45	03.15	03.35		04.00
06:00		06.25	06.45	05.15	05.35		06.00

**Aiarrino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiarratik dator
Soilik
larunbata gauzez

Asteburutan
Larunbat
lanegunetan

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) / 14:35*(T) / 19:15(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) / 13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) / 21:35 (T)
Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) / 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Urtarrila 2005

As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
Hurrengo alca						

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarreki ikastola..... 36 12 16
- Udarreki (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdia..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarrea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

!

Orrialdea bete eta NOAUA'ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321

Agenda !

Abenduak 19, igandea

- Santo Tomas Eguna Usurbilen.

Abenduak 19, igandea

- Pirritx eta Porrotx pailazoen "Patata, patata!" ikuskizuna Oiardo Kiroldagian. Bi saio: 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak salgai Bordatxon, Mahukan eta Kiroldagian. Antolatzailea: Argiaren Adiskideak Usurbilgo Taldea..

KzGunea abenduan

MINTEGIAK

- Postal bat bidali, Abenduak 28, asteartea, arratsez: 16:00-18:00 (euskaraz).
- Iberdrola, Abenduak 29, asteazkena: 18:00-20:00 (gaztelaniaz)
- Etxetik eros ezazu, Abenduak 30, osteguna, arratsez: 16:00-18:00 (euskaraz).

AZTERKETAK

IT Txartela, Abenduak 23, 16:00-18:00.

Soluzioa !

	★	S	★	N	★	Z	★	Z	★
	N	A	G	I	T	A	S	U	N
	★	N	A	R	A	M	A	T	E
★	N	★	B	E	R	E	K	O	I
B	E	L	U	S	A	★	E	★	A
★	B	O	R	T	I	Z	T	U	★
L	A	★	K	E	P	A	★	T	X
★	★	S	O	B	E	R	A	★	I
L	E	O	★	A	N	A	I	D	★
★	Z	A	I	N	A	★	A	D	I

Literaturaren txokoa !



Kurrin-Kurrin Vitae

Ikasle zein irakasle, ibili naizen leku guztiek utzi didate beren arrastoa. Arrasto horietako batzuk hezur muinetan sartuta daramatzat, noiz isil noiz kurrinka, aldian aldiko aldartearen arabera. Beste batzuk axalagoak dira. Badira kontu barregarriak eta badira negargarriak ere, eta ez da beti erraza izaten batzuk eta besteak bereizten.

Ez dut inortxo ere leziatu nahi liburu honen bidez. Hezkuntza floriaingoa zein garai batekoan kezka biziz bizi duen maisu baten aitortpena besterik ez da, funtsean, liburua.

Liburu honetan aurkituko duzuna ez



da, beraz, Mundua, nik neure diskursoaz eraiki dudana mundutxo baizik. Eta, nire mundutxo horretan sartzen bazara, hor ezagutuko dituzu nire ametsak eta lainezak, damuak eta mamuak, merituak eta delituak, ikarak eta ostikadak... Curriculum seriorik ez, Kurrin-kurrina baizik.

Joxerra Garzia

FITXA TEKNIKOA

"Kurrin-Kurrin Vitae"

Maisu baten ikarak eta ostikadak

Joxerra Garzia

Zerberri Saila, 2004

200 orrialde

Formatoa: 12 x 19 cm.

Prezioa: 13,50 euro.

Egin kontu !

Kantari xiberutarrekin afaria Agerialden

Nafartarrak kultur taldeak antolatuturik, datorren abenduaren 18an, gaueko 21:00etan kantutxo afaria dago iragarriarik Agerialden. Kantari xiberutarrek izango dira zehazki Muskildi eta Urdaibetetik etorriak.

Lehenik, arratsaldean, afal-aurrea girotzeko kalerik kale kalejira egingo da,

kantuz gozatzeko.

Ondoren, afaria Agerialden. Menua: patata txorizoarekin, haragi gisatua, postrea eta kafe konpletoa. Sarrerak 15 eurotan salgai, Txiriboga tabernan.

Afari hau kantatzeko joera galtzorian dagoela ikusirik, berau berreskuratzeko helburuz antolatu da.

GL

G

garraioak

ZABOR BILKAT

TELF: 943 37 01 46

al s p ster a




Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Etik k
El k klr in
Is (kz k (IN) 2 +)
R x z r + zu (s - 12 k)
In nk k (+)
r a - k k k
Enku - s) k (w r - , k r - k) a r
Zur - z k u z l - n

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

I n t n n - z r n n n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1



K m

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



*Izan direlako gara eta
garelako izango dira*



Zaku bete ilusio dakar
datorren urte berriak
ZORIONAK !

**URTE BERRI
ON!**



Usurbilgo Udala

*Ondo igaro
jaietan!*

*Zure Gabonetako
opariak*



MAHUKAⁿ

Aukera Zabala !!!

